



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Azken produktuaren produkzio eta antolaketarekin hasi baino lehen, lehenik eta bein, banaka bakoitzak idea zaparrada pentsatu zuen, gure bizimodua hobetzeko objetuekin eta ondoren denak elkartu eta bakoitzak bizitza hobetzeko pentsatutako ideia zaparradak partekatu zuen beste taldekideekin, adibidez, denetatik daukan xira, argidun liburu bat, argidun baloi bat, motxila txano eta mugikorra kargatzeko aukerarekin, baina, denak banan-banan aztertu ondoren ideia bat aukeratu genuen denon artean: alkatxofa multifuntzional bat.

Hasteko, ideia arrigarria iruditu zitzaigun gure egunerokotasuna erosoagoa egiteko. Alkatxofa hau beste alkatxofak baino kalitate handiagokoa da. Gainera, alkatxofa normalek ez dituzten jarduerak egiteko ere balio du, kasu, dutxako alkatxofatik mugikorrez hitz egin daiteke, hau da, edonork deitzen badizu hartzeko eta dutxa barrutik hitz egiteko aukera du, dutxatik atera behar izan gabe. Bestalde, alkatxofatik musika entzuteko aukera dago, zuk aukeratutako edozein musika mota, irratia, podcasta edo nahi duzuna. Gainera, mikrofono bat ere badu, era horretan, dutxan musika entzuterakoan abesteko aukera ematen du, baita telefonoz hitz egiteko ere.

Bigarrenik, ideia honetara iritsi gara ikusten gure egunerokotasunera, baita hanbat arazori irtenbidea eman ere, adibidez mugikorra ez bustitzeko, musika ondo entzun ahal izateko, norbaitek deitzen badizu telefonoz hitz egiteko aukera edukitzeko, besteak beste.

Gainera, honek hobekuntzak ekarri ditzazke gure egunerokotasunera, baita hanbat arazori irtenbidea eman ere, adibidez mugikorra ez bustitzeko, musika ondo entzun ahal izateko, norbaitek deitzen badizu telefonoz hitz egiteko aukera edukitzeko, besteak beste.

Azkenik, aipatutako arrazoiengatik produktu hau perfektua iruditu zaigu, uste dugulako, gizartean arrakasta handia izan dezakeen produktu bat izan daitekeela gehien bat gazteen artean, jende askori dutxan musika entzutea gustatzen zaiolako, baita abestea ere.

